Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4781

EBAZPENA, 2010eko irailaren 1ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, atzerrian EAErako interesgarriak diren gaietako espezializazio-ikasketak egiteko laguntzetarako deialdian erabiltzeko zenbateko osoa aldatzeko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko maiatzaren 19ko Aginduaren bidez (maiatzaren 31ko EHAA, 101. zk.), deialdia egiten da atzerrian EAErako interesgarriak diren gaietako espezializazio-ikasketak egiteko laguntzetarako.

Agindu horren 2. artikuluari jarraituz, laguntza horiek finantzatzeko diru-kopurua handitu ahal izango da deialdia ebatzi baino lehenago, legeetan aurreikusita dauden kreditu-loturaren edo aurrekontu-aldaketen bitartez. Aldatuz gero, horren berri Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak emango du ebazpen baten bitartez.

Diru-laguntzetarako deialdiaren ebazpenak berekin dakartzan behar ekonomikoak ikusita, eta 2010eko maiatzaren 19ko Aginduaren 2. artikulua bete dadin, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Diru-laguntzetarako deialdiko zenbateko osoa aldatzea, zenbateko horri 15.980,30 euro gehituz.

2. artikulua.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 1a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

4781

RESOLUCIÓN de 1 de septiembre de 2010, de la Viceconsejera de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se modifica el importe global destinado a la convocatoria de las ayudas para la realización de estudios en el extranjero en temas de interés para la Comunidad del País Vasco.

La Orden de 19 de mayo de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación (BOPV n.º 101 de 31 de mayo), convoca ayudas para la realización de estudios en el extranjero en temas de interés para la Comunidad del País Vasco.

Dicha Orden en su artículo 2 establece que el importe destinado a la financiación de estas ayudas, podrá, con anterioridad a su Resolución, ser modificado, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. De producirse tal circunstancia se dará publicidad de la misma mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación.

Vistas las necesidades económicas que genera la resolución de la citada convocatoria de ayudas y en cumplimiento del ya mencionado artículo 2 de la Orden de 19 de mayo de 2010,

RESUELVO:

Artículo 1.– Modificar el importe económico total a que asciende la mencionada convocatoria de ayudas, ampliando en un total de 15.980,30 euros.

Artículo 2.– Contra la presente Resolución se podrá interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de septiembre de 2010.

La Viceconsejera de Administración y Servicios,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.